

# TIBURTZIO DONEAREN PESTAK

Leitza  
2019





# AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK




"PESTA DANTZARIÑEK"  
NAIARA SANTANO  
HAIZEA AZPIROZ



"LAIA"  
LEIRE SAGASTIBELTZA



"GAIZKILLEA"  
GAIZKA LEITZA



"GURE BETIKO PESTAK"  
AMAIA MARIEZKURRENA



"POST-IT"  
AMAIA MARIEZKURRENA

Eskerrak eman parte hartu duzuen guziri eta **ZORIONAK**  
**SAIOA MARITORENA ETXEBERRIARI** "SAI" kartelarekin irabazi duenari.

## ALKATEAREN AGURRA

Kaixo, leitzarrek:

Hasteko eta behin, igaro berri diren hauteskundeetan gure taldeak jasotako babes zabala eskertu nahi dizuet. Talde berria lanean dabil jada eta, laster zenbait proiektu loratuko diren bezalaxe, egitasmo berriak ereiten hasi gara dagoeneko.

Ni ere hementxe nauzue berriro, pestetako alkatearen agurra idazten, eta aitortu behar dizuet lehen egunean sentitu nituen errespetu zein ilusio berdinak sumatzen ditudala barruan.

Hogeita lau urte pasa dira, ia mende laurdena, Leitzan pertsona berak alkatetzan errepikatzen ez zuela. Argi dago ez dela kasualitate hutsa izan. Tarteko ilegalizazioak, ukazioak eta momentu oso zailak egon direlako. Orain Euskal Herrian aukera berriak zabaldu dira eta, Leitzan ere, egoera hori baliatzen saiatu behar dugu, askatasunean eta bakean bizitzeko eskubidea dugulako.

Zentzu horretan, aurreko legealdian gure herrirako aukera eta proiektu berriak sortzeko auzolanean aritu diren hautetsi ohiei bihoakie hemendik nire eskerrik beroena.

Auzolana askotan aipatzen dudan hitza da. Izan ere, auzolana modu zabalean ulertuta, herri izaeraren muina dela sinestuta nago. Eta auzolana aipatuz gero, herriko eragileak ezin ahaztu. Milesker zuei ere gure herrian egiten duzuen ezinbesteko ekarpenagatik eta saretzen dituzuen harremanengatik.

Eragile horien artean, bada orain dela urte bat, udako solstizioarekin batera, lozorroan zegoen mugimendua esnatu eta bide berri bati ekin zion talde bat. Izan ere, SASTRAKAK, Leitzaldeko talde feminista, jaio berri da. Leitzako Udala bidelagun izanen duzue, berdintasunaren bidean, feminismoa babesten eta bultzatzen jarraitzeko asmoa baitugu. Ezinezkoa delako gizarte justu bat izatea, berdintasunean oinarritzen ez bada.

Leitzako pestak ere ez lirateke horren kuttunak eta aberatsak izango hilabeteen joan-etorrian lan eta lan aritzen den Pesta Batzordeagatik izanen ez balitz. Milesker zuei ere!

Nire agurraren azken hitzak urte honetan utzi gaituzten lagunak oroitzeko baliatu nahi nituzke. Pestetan ere, irribar batez gogoan izanen zaituztegu.

**Mikel Zabaleta. Leitzako alkatea.**



Leitzako Udala



atekabeltz  
herrigunea





# ABUZTUAK 3 LARUNBATA

## REPARTO EGUNA

---

**14:00** Eskelarien bazkaria Aurreran.

**16:00** Auzoz auzo, PLAZAOLA aldizkariaren banaketa; trikitalari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntzaz.





# ABUZTUAK 4 IGANDEA

## UMEEN EGUNA

---

- 09:00** Diana txistulariekin.
- 10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du.
- 11:00** TXUPINAZOA
- Ondoren** Gurpildun zezenen entzierroa herriko boluntarioen lagunduta.
- 11:30** Umeentzako jolasak.
- 16:00** Gaztetxon goxokiak banatuko dira Katiren kontura.
- 16:00-18:00** Puzgarriak plazan.
- 17:45-18:30** Aurrera Pilota Eslolako partidak.
- 18:30** Aurrerako dantzari ttikien emanaldia.
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira.
- 20:00** Leitzako Konpartsa aterako da.
- 20:30-00:30** JOXE MENDIZABAL orkestra gizona eta Holi pesta.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- Ondoren** Ustekabeko oparia.



# ABUZTUAK 10 LARUNBATA

## PESTA BEZPERA

---

- 11:30** Kuadrillen arteko herri kirolak plazan.
- 13:00** Elkartasun manifa Kuxkuxtu taldeak lagunduta, Elkartasun taldeak antolatuta.
- 13:30** Leitzako Jubilatuen Elkartek antolaturiko bazkaria elkartean.
- 14:00** Elkartasun bazkaria karrapean, musikaz alaiturik, Elkartasun taldeak antolatuta.
- 18:00** TXUPINAZOA eta Plazaola aldizkariko azalen egileei sari ematea.
- Ondoren** Incasables Txaranga, txistulariak, Leitzako Konpartsa eta gaiteroak aterako dira herrian barrena kalejiran.
- 18:30** LA JODEDERA taldea Labetxeko atarian, Aurrera Elkartek antolatuta.
- 22:00** Zezensuzkoa.
- 23:00** THE TRIKITEENS taldearen kontzertua plazan.
- 00:00** Xeiki, Alerta Gorria, eta DJ Loro Atekabeltzen Txozna Batzordeak antolatua.
- 01:00** Incansables Txarangaren gaueko erronda.
- 02:30** DJ Elepunto plazako txoznan, Txozna batzordeak antolatuta.





# ABUZTUAK II IGANDEA

## TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

---

**08:00** Diana txistulariekin.

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan.

**10:30** Meza, San Miguel parrokiak antolatuta.

**11:30** Hamaiketako irekia karrapen, Udalak eskainita.

**12:00** Aurrerako EZPATADANTZARIAK plazan.

**Ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak plazan.

**13:00** Aurreratik Incansables Txaranga aterako da.

**17:00** Leitzako Bertso Eskolako bertsolarien saioa Labetxeko atarian, Aurrera Elkarteak antolatuta.

**18:00** Zezenak.

**19:00** Herri kirol saioa plazan:

**Harria jasotzen:**

INAXIO PERURENA

**Laixterkan:**

MARTXEL INTXAUSTI / ANE INTXAUSTI

**Aizkoran:**

JULEN OLANO (Leitza) / ODEI EZPELETA(Eibar)

IBAI SOROA (Arribe) / ENEKO SARALEGI (Leitza)

**Ondoren** Goxokiak banatuko dira.

**19:30** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira Aurreratik.

**21:00** Leitzako ingurutxoa nahi duen guziarentzat.

**22:00** Zezensuzkoa.

**23:00** PURO RELAJO mariatxiak plazan.

**01:00** Incansables Txarangaren gaueko erronda.



# ABUZTUAK 12 ASTELEHENA

## PESTA BIGARRENA

---

**08:00** Diana txistulariekin.

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan.

**11:30** Pilota partidak plazan:  
IERA AGIRRE / MAITE RUIZ DE LARRAMENDI  
PATRI ESPINAR / MAIDER MENDIZABAL

**Ondoren** Leitzako Konpartsa aterako da.

**12:30** Mosaikoa Sarek antolatua.

**13:00** Txakolin dastaketa karrapean.

**13:00** Incansables txarangaren emanaldia karrapean.

**17:00** Zezenak.

**19:00** Aurrerako dantzarien emanaldia plazan.

**Ondoren** Goxokiak banatuko dira.

**20:30** Incansables Txaranga eta buruhaundiak aterako dira Aurreratik.

**22:00** Zezensuzkoa.


**23:00** KURKUMA eta Ik3r & Plan-B taldeak plazan.

**00:30** DJ Gaua Atekabeltzen Txozna Batzordeak antolatua:  
DJ Essan, DJ Jon D, DJ Gordon eta DJ Verbrothers.

**01:00** Incansables Txaranga gaueko erronda egitera aterako da.

**02:00** DJ Jotatxo beheko txoznan, Txozna Batzordeak antolatuta.

**03:00** Leitzako ingurutxoa nahi duen guziarentzat plazan.





# ABUZTUAK 13 ASTEARTEA

## PESTA HIRUGARRENA

---

**08:00** Diana txistulariekin.

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan.

**09:00** Plater tiraketa Baztarlan, Ehiztarien Elkartek antolatuta.

**11:00** "Denboraren taupada" antzezlan plazan.

**12:00** Paella lehiaketa, kantu zaharrek lagunduta karrapean.

**13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.

**17:00** Zezenak.

**18:00** Bertsolariak plazan.

Maialen Lujanbio Zugasti / Aitor Mendiluze Gonzalez / Julio Soto Ezkurdia  
Nerea Elustondo Plazaola / Joanes Illarregi Marzol / Xabat Illarregi Marzol.

**Ondoren** Goxokiak banatuko dira.

**19:30** Pilotari profesionalen partidak Asperen eskutik Amazabal Pilotalekuan.

RETEGI BI-JAUNARENA / PELLO ETXEBERRIA-BIKUÑA  
EZKURDIA-ZABALETA / ALTUNA III-LADIS GALARZA

**19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira Aurreratik.

**21:30** Zezensuzkoa.

**Ondoren** Ustekabeko oparia.

**22:00** Herri aparia.

**01:00** Incansables txaranga gaueko erronda egitera aterako da.




# ABUZTUAK 14 ASTEAZKENA

## PESTA LAUGARRENA / GAZTE EGUNA

---

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 12:00** Umeentzako aparra plazan.
- 12:30** Froga poteoa plazan Txozna Batzordeak antolatua.
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- 14:55** Gazte brindisa plazan Txozna Batzordeak antolatua.
- 15:00** Gazte bazkaria plazan. Bingo musikatua, mojitoak eta mozerroak izanen dira. Txozna Batzordeak antolatua.
- 16:00-19:00** Ur-txirrista Errekaldeneko aldapan.
- 17:30** Zuzeneko musika emanaldia Labetxeko atarian, Aurrera Elkartek antolatuta.
- 18:30** Plazan hasita Elektrotxufla Elektrotxaranga herrian zehar.
- 19:30** Incansables Txaranga eta buruhaundiak.
- 21:30** Zezensuzkoa.
- 23:30** SKABIDEAN & THE BLACK BIRDS eta KOP taldeen kontzertua plazan.
- Ondoren** Atekabeltzen DJ REIMY Txozna Batzordek antolatua.
- 01:00** Incansables Txaranga gaueko erronda egitera aterako da.





# ABUZTUAK 15 OSTEGUNA

## PESTA BOSTGARRENA

---

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 12:00** Herri kirol ikuskizuna plazan.  
**Aizkoran:** NEREA SORONDO (Bera) / ITSASO ONSALO (Areso)  
**Harria jasotzen:** JOSEBA eta UDANE OSTOLAZA aita-alabak  
**Giza proba:** JOSEBA SANCHEZ, MIEL ANJEL SUKUNTZA eta LAZARO BUJAN (Leitzarrak).
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- 14:30** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean.
- 18:00** Helduen entzierroa eta ondoren behiak plazan.
- 19:00** Helduen ingurutxoia plazan.
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira eta Aurreratik Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira.
- 21:30** Zezensuzkoa.
- 23:00** GREGARIO DE LUXE taldearen kontzertua plazan.
- Ondoren** "Gaixoa ni!" Incansables Txarangarekin.



# PROGRAMACION DE FIESTAS DE SAN TIBURTZIO

## 4 de Agosto, sábado

### DÍA DEL REPARTO

- 14:00** Comida en el Aurrera.  
**16:00** Reparto del programa por los barrios acompañados por los músicos.

## 5 de Agosto, domingo

### DÍA DEL NIÑO

- 09:00** Diana  
**10:00** Almuerzo de la corporación txiki.  
**11:00** Chupinazo.  
**Después** encierro con toros con ruedas a cargo de voluntari@s.  
**11:30** Juegos infantiles.  
**13:00** Reparto de caramelos en Gaztetxo a cargo de Kati.  
**1600-1800** Hinchables en la plaza.  
**17:45-18:30** Partidos de pelota a cargo de la Escuela de Pelota Aurrera.  
**18h30** Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera.  
**Después** reparto de caramelos.  
**20:00** Cabezudos y gigantes.  
**20:30-00:30** Joxe Mendizabal y fiesta Holi.  
**22:00** Toro de fuego.

## 10 de Agosto, sábado

### VÍSPERA

- 11:30** Deporte rural entre cuadrillas.  
**13:00** Manifestación animada por el grupo Kuxkuxtu a cargo del Elkartasun Taldea.  
**13:30** Comida organizada por el Club de Jubilados.  
**14:00** Comida solidaria amenizada por música organizada por Elkartasun Taldea.

- 18:00** Chupinazo y entrega de premios.

**Después,** pasacalles con charanga, txistularis, gaiteros y cabezudos.

- 18:30** Actuación de La Jodedera organizada por el Aurrera.

- 22:00** Toro de fuego.

- 23:00** The Trikiteens.

- 00:00** Xeiki, Alerta Gorria y DJ Loro en Atekabeltz organizado por Txozna Batzordea.

- 01:00** Charanga Incansables.

- 02:30** DJ El punto en la txozna de la plaza a cargo de Txozna Batzordea.

## 11 de Agosto, domingo

### SAN TIBURTZIO

- 08:00** Diana.  
**09:00** Encierro y vacas.  
**10:30** Misa a cargo de la Parroquia San Migel.  
**11:30** Almuerzo popular en el karrape a cargo del ayuntamiento.  
**12:00** Actuación de Ezpatadantzariak  
**Después** partidos de pelota de aficionados.  
**13:00** Charanga Incansables.  
**17:00** Bersolaris de la escuela de bertsos de Leitza organizado por el Aurrera.  
**18:00** Vacas.  
**19:00** Deporte rural.  
**Después** se repartirán caramelos.  
**19:30** Charanga Incansables y cabezudos.  
**21:00** Ingurutxo.  
**22:00** Toro de fuego.  
**23:00** Puro Relajo.  
**01:00** Charanga Incansables.



## 12 de Agosto, lunes

- 08:00** Diana.
- 09:00** Encierro y vacas.
- 11:30** Partidos de pelota en la plaza.
- Después** la comparsa de gigantes saldra en kalejira.
- 12:30** Mosaico a cargo de Sare.
- 13:00** Degustación de txakolí.
- 13:00** Charanga Incansables en el karrape.
- 17:00** Vacas.
- 19:00** Actuación de los dantzaris del Aurrera.
- Después** se repartirán caramelos.
- 20:30** Charanga Incansables y cabezudos.
- 22:00** Toro de fuego
- 23:00** Conciertos de Kurkuma e Ik3r & Plan B en la plaza.
- 00:30** Noche de DJ en Atekabeltz organizado por Txozna Batzordea: DJ Essan, DJ Jon D, DJ Gordon y DJ Verbrothers.
- 01:00** Charanga Incansables.
- 02:00** DJ Jotatxo en la txozna de abajo a cargo de Txozna Batzordea.
- 03:00** Ingurutxo .

## 13 de Agosto, martes

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas.
- 09:00** Tiro al plato en Baztarla organizado por la Asocioación de Cazadores de Leitza.
- 11:00** Teatro infantil "Denboraren taupada" en la plaza.
- 12:00** Concurso de paellas amenizada por kantu zaharrak en el karrape.
- 13:00** Charanga Incansables.
- 17:00** Vacas
- 18:00** Bertsolaris en la plaza.
- Después** reparto de caramelos.
- 19:30** Partidos de pelota profesionales en el frontón Amazabal a cargo de Aspe.
- 19:30** Charanga Incansables y cabezudos.
- 21:30** Toro de fuego.
- 22:00** Cena popular en la plaza.
- 01:00** Charanga Incansables.



## 14 de Agosto, miércoles DÍA DE LA JUVENTUD

- 08:00** Diana.
- 09:00** Encierro y vacas.
- 12:00** Espuma en la plaza.
- 12:30** Poteo y juegos en la plaza a cargo de Txozna Batzordea.
- 13:00** Charanga Incansables.
- 14:55** Brindis en la plaza a cargo de Txozna Batzordea.
- 15:00** Comida en el karrape. Después bingo musical, mojitos y disfraces. Organizado por Txozna Batzordea.
- 16:00-19:00** Tobogan acuático
- 17:30** Música en directo en el Aurrera
- 18:30** Iniciando desde la plaza, kalejira por el pueblo con Elektrotxufla.
- 19:30** Charanga Incansables y cabezudos.
- 22:00** Toro de fuego.
- 23:30-01:00** Conciertos de Skabidean & The Black Birds y Kop en la plaza.
- Después** DJ Reimy en Atekabeltz organizado por Txozna Batzordea.
- 01:00** Charanga Incansables.


## 15 de Agosto, jueves

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 12:00** Deporte rural en la plaza.
- 13:00** Charanga Incansables.
- 14:30** Comida de soci@s del Aurrera.
- 18:00** Encierro y vacas.
- 19:00** Ingurutxo.
- Después** se repartirán caramelos.
- 22:00** Toro de fuego
- 23:00** Concierto de Gregario de Luxe en la plaza.
- Después** "Pobredemí" con la Charanga Incansables.

## OHARRAK

---

- 1 Udalak ez du zezenketetan gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2 Egitaraua borondatearen truke banatuko da. Udaletxean eta liburu-dendetan salgai izanen da banaketa eguna eta gero.
- 3 Zezenetan dabiltzanek ihesbide errezagoa izan dezaten, hesien gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatuta dute zezenetan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak bere lana behar bezala egin dezan, oholtza libre utzi.
- 6 Antolatzaileak, ez du bere gain hartuko zezensuzkoan gerta litezkeen erredura edo bestelakoen erantzukizuna.
- 7 Paella lehiaketarako oharrak:
  - Nork bere sua eraman behar du sukaldatzeko. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
  - Epaimahaiak hartuko du erabakia.
  - Ondoren nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahaiak eta aulkiak bertan izanen dira.
- 8 Antolatzaileak, ez ditu egitarauko ekitaldi guztiak bere gain hartzen. Horiek jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.
- 9 Antolatzaileak, ez du bere gain hartuko Holi pestan erabiliko diren hautsek eta umeentzako aparrek sor litzaketen arlegien erantzukizuna.



## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEAREN OHARRAK

---

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileak (Aurrera Kirol Elkartea) ez du zertan ados egon argitaratzen diren idatzietako iritziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi beharko diote aldizkariaren antolatzaileari; sor litezkeen legezko arazoen erantzukizuna idazkien egileena izanen da.
- **Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Luze, Juan Mari Soro, Joana Saralegi, Jose Luis Huarte eta Leire Karrerari. Bejondeizuela denei!**





LEITZAKO PESTAK!!!



Plazaola Leitzako  
aldizkaria 41. zenbakia  
Liñua



~~Liher~~



"LIÑUA" LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA-ren lana izan da  
16 urtetik beherakoen artean irabazlea

ZORIONAK





"LEITZEKO BURUHAUNDIK KORRIKA" **UXUE AGIRRE**



"LEITZEKO ERRALDOIAK DANTZAN" **LIHER FERNANDEZ**



"IZARRAK" **NAIARA JAUNIKORENA**







Gure sustraien adar luzeen zaindari fiñe ziñenez  
 Bide bikañe osatu ziñun ondarea eramanez  
 Txistuarekin alaitu ziñun Leitze doñu ederrenez  
 Borondatetsu herrigintzari dena eman zenionez  
 Leitzarren partez besarkada bat ta bi muxu esker onez  
 Luze



Eskerrik asko Eskubi!  
 Aurrerako Pesta Batzordea





Iepe Leitzar!

Udara giroa gure kaleetan, berotasunak lagun eta gau motzez terrazetan gozatzen ari garen honetan, San Tiburtzio pestak gainean dauzkagu; honezkero gure errepideetan egurrezko hesiak jarrita daude eta hauek jarztearekin batera, gure herrian jai giroa gailendu da, lagun eta senide arteko otorduak programatuz, gure etxeetako ateak zabalduz zortzi egun iraunen dituzten pestez disfrutatzen. Eta aurten, besteetan bezala, zortzi egunak ekitaldiz bete- beteak ditugu leitzarrok eta gurera gerturatzen den orok gure alaitasunaz eta ongi pasatzeko gogoez blaitzeko.

Tira, baina denok jakitun izan behar gara zortzi egunetako pestek urtebeteko lanketa luzea eta trinkoa dutela; eta eskuen artean duzun aldizkaria esfortzu horren aztarna txiki bat duzula. Leitzar gehienek dakizuen bezala urteetan Pesta Batzorde bat biltzen da non eta Udala eta herriko beste eragile batzuk biltzen diren, eta Aurrera Kirol Elkarteko bazkideok hor egoten gara. Pestek elkarlana eta auzolana oinarri dute, dena ongi, txukun eta denen gustukoa den programa eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu bertan biltzen garenok.

Erabakiz jositako bilerak izaten dira, eztabaidez eta herriari hoberena eskaintzeko asmoz beteak. Erabaki eta lan horien artean, aipatze arren, txupinazoa nork bota proposatzen dugu, Plazaola aldizkariako azalaren lehiaketan antolatzen dugu, aldizkari honetan agertzen diren idatzi eta argazkiak biltzen ditugu, pestetan tabernaren irekiera kudeatzen dugu eta bertan ere ekitaldi desberdinez goatzeko parada eskaintzen dugu.

Adierazi bezala, Pesta Batzordean Aurrera Kirol Elkarteko bazkideak fin ibiltzen badira, tarte honetan ezin dugu azpimarratu gabe utzi geure elkarteko Batzorde ezberdinek urte guztian zehar egiten duten lana, isilik eta zorrotz herri honen bihotzeko taupadak azkartzen dituztenak beraien ekimenekin. Horien artean: Aurrera Dantza, BTT, Herri krosa, Mendibil, Eguberriak, Iotek eta Etxeko komisioa dira. Eta nola ez, aipatu gabe ezin utzi beste bi urteetako ardura hartu duten zuzendaritzako kideak. Musutruk konpromisoa ematea zaila izaten den garai hauetan, haiek beraien orduak herribizi baten alde ematen dutelako.

Eta aipamenak aipamen, tarte honetaz baliatuko gara aipamen bereziak eta desberdinak egiteko. Lehenik eta behin, Aurrera Kirol Elkarteko Pelota eskolak urteetan egin duen lana azpimarratu nahi dugu. Gure aldetik hamaika aldiz eskertu badiogu ere euren lan fina, aipagarria da aurten Iruñatik ELKARPELOTAK (kirolariak trebatzeko zentroa) esku pilotaren sustapenean emandako saria. Sari hau urte guztian zehar lanean aritzen diren boluntarioei eman zaie eta Aurrera Kirol Elkartek bere miresmena, poza eta harrotasuna helarazi nahi dio Pelota Eskolari. Zorionak benetan, zuek zarete herri honetako pilotarien harrobia. Aurrera jarraitu zuen egitasmoarekin!

Bestalde, orrialde hauekin ere ospatu behar dugu emakumez osatutako eskubaloitako taldea sortu berri dela gurean. Futbol zelaietan, frontoietan, arte martzialetan, giza- probetan benetan bikainak diren emaitzak lortu baldin badituzte emakumeek, zer itxaron dezakegu sortu den talde berri honetaz? Gure herriko jendartearen ahalmena mugagabea da eta zuen eskuetatik ateratzen dena horrela izango da. Aurrera emakumeak!!

Batzordeen lanaz harago gogora ekarri nahi dugu aurten Korrika Leitzetik igaro zela eta beste eragileekin batera, geure herria euskararen arnas gune izaki, kilometroa hartu genuen euskararen sugarra gure herriko malda eta txoko guztietatik barraiatzeko. Emozioz betetako uneak dira herritarrontzat eta Aurrera Kirol Elkartek bat egiten du herria pozaz eta konpromisoz betetzen dituzten ekimen ororekin; are eta trinkoagoa da gure konpromisoa gure hizkuntzarekin lotzen bada.

Bukatzeko gogora ekarri nahi dizuegu Aurrera Eguna urriaren 5ean izanen dugula eta aurtengoa ez da izanen nola nahiko eguna. Aurten 31 urte ospatuko ditugu Aurrera Kirol Elkartearen eraikineko obretako proiektua herriko boluntarioei esker aurrera atera zela. 160 aizkolari Leitzar garai hartako Larbando futbol zelaian lanean aritu bai ziren. Aizkorian aritu zirenei edo beren senideei esker onak emateko, orduan bezalaxe, auzolanean bildutako dokumentazio guztia 1988ko ekainaren 5ean aizkorian aritutakoen argazki eta bideo zati batzuk banatuko zaizkie.

Besterik gabe, Aurrera Kirol Elkartearen izenean, pesta onak igaro eta

Gora San Tiburtzio!!



# Jexux eta Tomaxin, Leitzeko festen auspoak



Tomaxin eta Jexux, 2019ko Iñauterietan Aurreran.

Leitzeko musikeroen banda kalean gora dator Iñauterietako haize fiñari aurre eginez. Gogo behar do ilbeltzeko hotz honekin kalean ibiltzeko ! Dena dela, berdin ikusiko ditugu musikeroak pestetako programak banatzen udako bero-saparekin. Tartean ditugu majiña bat pesta alaituz herrian arrastoa utzi duten bi artista. Begietan gaztetxoek ilusioa ageri dute beño gazte izanduak ditugu biak. Bi bizitza, bi izakera oso desberdin, baina pasio berbera: akordeoia.

Jesus Azpiroz Bengoetxea, Mitxelistenen iaio zen, 1936eko Egueri Egunean. Tomas, Erviti Caballero, berriz, Katalintxoneko herrin iaio zen, 1944ko uztailaren 6an, alegia, San Fermin bezperan. Hortaz, iaio ziren egunetik bertatik egin zuten bat festa egun handiekin, gerora urte luzeetan musika joaz egiten zuten bezalaxe.

## Zein duzue kordionan oroitzapen zaharrena?

**Jexus.** Nik ume-garaiko hiru kordionista dittot gogoa, oso politte: Uitziko Fermin Sukuntza, Aisoko Bautista Caballero, eta Rafael Sanjurjo, Lesakarra, hau eguerrian ta jai haunditan etortzen zen. Txoratue eotten nitzen haiei beide.

**Tomaxin.** Gu herrin bizi giñen, plazan ondoan. Gogoa dot Sanjurjo jotzen ikusi nula umetan. Aisoarra, berriz, gure pariente zen, Bautista Caballero, Sutegikoa, earki aitzen zena. Haren inbiditan eotten nintzen ni.

## Nola hasi zineten ikasten?

**T.** Solfeoa Don Jameime apezak erakutsi zien aurrena. Gero Miren Irurtiakin, solfeoa eta gero harekin hasi nintzen kordiona jotzen. Ispillun aitzen zen Miren ezkerreko eskue trebatzen.

12 urtekin gurasoek kordiona erosi zitean, Larrinaga, 80 bajukoa. Donostin erosie, Egiako aldapan. Han Tomax Joxepantonin osaba aitzen zen lanen.

16 urtekin Donostire joan nintzen izoan etxera hiru hilerako ta han Manuel Yaben etortzen zen erakustera. Yaben berez, Berastegiara zen, ta Españako kanpeona aterea zen. Gero beste 3 illabetez, bizikletan joan nintzen Leitzetik Hernanire, Yabenen etxera. Eskuk kollatukin allatzen nintzen. Yabenek allatu eta esaten zien, jo kordiona! Ta nik ezin, esku kollatukin. Han bentiladorek eskuk berotu eta ordun hasten nintzen.

**J.** Ni berandu hasi nitzen oso. Motikotan kantari aitzen nitzen, 9 urtekin elizeko goiko korutik bakar-bakarrak aittue naiz. 16 urtekin boza kanbiatu zetkien eta kantatzeari utzi nion. 20 urtekin soldaduskara joan beño lehentxeo hasi nintzen kordionakin, Pastingo Hilario Barriolari Guerrini bat erosi ondoren. Zale amorratue nitzen eta nolabate hasi nitzen harekin zalapartan. Belarri ona nun beño teknika-arrastorik ez. Sodadusken Pakito Bidaurreta ezautu nun, Burguete aldekoa, earki aitzen zena, eta bere etxera joanda harekin hasi nitzen. Ordureko pixkoat aittue nitzen beño okerreko gauze asko nittun ikasik. Metodoakin hasi nintzen zuzentzen. Yabeneke ere aittu nintzen ni. Leitzetik Hernanire allatzeko hiru ordu behar izaten nittun. Autobuse Tolosara, trolebuse



Andoaiñera, handik beste autobuse... Her-nanire allatzea kostatzen zen ordun!

### Ta aurreneko plaza noiz?

**J.** Nik 21 urtekin, soldadusken nengoala, karrapen. Ordun ez zen deus ere izaten eta jendek ikarri estimatzen zuen kordio-na. Ez bait zen besteik! Jota batzuk eta pasakalle batzuk jo ta karrapea punte bate-tik bestera jendez betea izaten zen, hure ambientea jartzen zen!

**T.** Nik 14 urtekin karnabaletan, Gorritzaranea, behetik. Krixton elurre zegoan ta koadrillle haundie bildu giñen. Kordiona bizkarren hartu eta aurea! Leitze, Urbita, Kantina.... Gero Madril Txikire, Beñinborda, Miltxo, Katalintxone... hori zen Madril Txiki. Normalen goiz etortzen giñen herrire, 3 t'erditarako edo.

### Beste akordionik erosi al ziñuten?

**T.** 16 urte nittula, bagiñun Puente la Reinako lagun bat, apezka, Erroman ibillitakoa. Ta hark handik kordiona ekarriko ziula esan zigun. Manfri-ni markakoa ekarri zun, 120.000 lira kostatakoa (12.000 pezeta inguru). Sollube-ko antena inauguratu zenen, Yabenek kordion hori eskatu zien bertan jotzeko. Orain ibiltzen dotena, Paolo Soprane, Frantzitik ekarri nun.

**J.** Nik bigarren kordiona Txikito Berastegikoari erosi nion, Soprani bat, politte. Laun haundie nun Txikito. Soñujotzalle amorratue zen. Askoz beranduago erosi nun orain ibiltzen doten Paolo Soprane.

### Noiz jotzen zenuten kordiona?

**J.** Asteburutan ibiltzen nintzen jotzen herriz-herriz, pestetan, ezkontzetan, aparitan... Basakabin eta karrapen askotan. Han hotzak akatzen eotten nintzen batzutan eta braseroa jarrita berotzen nittun eskuk. 25-26 urterako ordea, ezkondu nitzen eta fabriken hasi. Afizio ikaragarrie nun, beño aukeratu in behar



△ Jexux eta Tomaxin, pestetako programak banatzen. Urtea?? Kale nagusiko azerak egiten ari zirenean...

◀ 2019. Tomaxin Aurreran jotzen.



izan nun, fabrike edo herriz herri segi kordionakin, eta fabrikekin geldittu nintzen. Ordureko instrumentue earki dominatzen nula jarrie nintzen, 32 urtekin edo, beño fabriketik libratzen nitzenen jotzen nun.


**T.** Urte guzin, iandetan. Karrapea punta batetik bestera jendez betetzen zen. Zirkuluko mahaie jarri eta han gañen aitzen giñen, Jexux ta ni txandaka. Megafoniarik gabe, urte askoan.

Batzutan Tolatxeneko Fermiñekin, berak baterie joaz. Zapela pasatzen giñun eta biltzen zen dirukin 6 lagun-ek apaltzeko aña ateratzen giñun, eta sobra zena, muskarintzat. Zirkulun, Arakindegan, Gaztañagan apalduko giñun, txandaka, eta gero kordionakin herrin gora igotzen giñen. Albientea abudo ateratzen zen ordun: "Erronda al daukeu?" Ta erretiatu egin behar izaten giñun, bestela denuntzie izaten zen, "por gamberrismo"! Behin amezkillek aittuta etxera joan behar izaten zen.

**T.** Udazken aldera baserriren batean artazuriketan ari zirela jakitten bagiñun ere, gaztetan haraxe joaten giñen kordiona hartuta. Pesta politte izaten zen! Kantuk, dantzak, oso politte!



Jexux eta Tomaxin Arakindegín, 2016ko programa-banaketan.



Jexux, Leitzarren legezaharrean jotzen, mahai-gañetik.

### Giro ona jartzen al zun kordionak?

**J.** A ze giroa jartzen giñun karrapen! Kordioniste kategorie izaten zen ordun. Jende guztie txoratu jarzen zen beide, eta baita dantzari ere.

**T.** Ordun kordioniste orain Berri Txarrak taldeak jotzea bezelakoa zen, ikaragarrie! Ez bait zen besteik izaten! Telebistarik ez zen, eta gehienez, radioa. Kordiona jotzen hasi eta karrapea bete egiten zen. Giro zoragarrie jartzen zen! Behin gogoan dot “pasa la tuna” balsa jo nula eta neska-mutillak dantzari aittu ziela. 15 minutu beño lehen albientea etorri zen eta koartelen bukatu giñun. Goardia Zibilek esan zitean kordiona bertan utzi eta alde itteko eta nik, ezetz. Kordionak ez zula kulpeik, norbattekkulpe bazun ni nintzela eta kordiona launek eramateko. Azkenen, “Vayase y que no se repita” esan zien! Handik atera eta pestan segittu giñun.

### Herritik kanpora ere jotzera ateratzen al zineten?

**T.** Aisora, askotan, Pestetan, San Pedrotan, Karnaballetan... Vespan joaten nintzen, kordiona hanka tartent hartuta. Beste herri askotara ere allatu nintzen, Erribera, Goldaratz, Zarrantz, Riezu, Arizala... Lekunberriko bateri-jole bat etortzen zen nerekin, Anibal.

**J.** Herriz-herri ibili nintzen 10 bat urtez, Aiso, Ezkurre, Eratsun, Berastegi, Saldís, batera ta bestera geldittu gabe.

### Zer jotzen zenuten?

**J.** Jotak eta porrusaldak, pilleka, balsa ez bait zen libre. Leitze azkenekoatakoa izandu zen balsa ametitzen. Nik pieza eleganteak ikasi nitun: Sitios de Zaragoza, Kzardas de Monti, polkak... Sanjurjo aittuta ordureko jendea ohittue zegoan kategoriko soñue aitzen. Pieza haik jotzeko serio lan iñ behar zen!

**T.** Sueltoan topera aitzen zen jendea. Balsa dantzatzeta galazie eotten zen Leitzen. Jota, porrusalda eta korroa. Hoixe jotzen giñun. Gero, komisio bat sortu zen balsa dantzatzeko baimena lortzeko, ta Tiburtzio ta beste batzuk joan zien apezangana eta baimena lortu giñun, sueltoko 3 piezako bals bat jotzeko.

**T.** Partiturek Donostitik edo Iruñetik lortzen giñuzen, pezta baten. Gogoan dittot, “El vals de los recuerdos”, “Pepita de Mallorca...”, solfeoa ikasi nunez partiturekin kantak earki ikasten nittun.

### Kordiona jotzen erakusten edo zuen piezak sortzen arituak al zarete?

**T.** Ez, ni ez.

**J.** Bai, bai, garai baten gure etxera neska motiko koardille etorri zen ikastera. Antonio Sagastibeltza pri-



meran jarri zen. Besteren bat ere bai. Nik sortutako pieza mordoska ere badauket, jotak, pasakallek, eta azken urtetan elizeko kanta batzuk ere bai.

### **Zein da ikusi duzuen kordionista onena?**

**T.** Yaben. Gure ezkotzan hark jo zun. Sanjurjo ere bikañe zen. Pepito Yantzi... Bortziritan afizio ikaragarrie zen, eta baita Garralda-Jaurrieta alde hortan ere.

**J.** Asko, Isidro tolosarra, Manolo Yaben, ta beste asko. Txapelketa batzuk ikustera ere joan izandu nintzen. Hemen baziren onak beño rusoak ikaragarrik zien. Hori jotzea! ezkerakin nahi zutena jotzen zuten eta gu txutik jarrita txaloka eotten giñen.

### **Denborakin kordiona indarra galtzen joan zen, ezta?**

**J.** Bai, lehen batzuk kordiona jotzetik bizitzen zien beño konjuntoak hasi zienen kordiona indarra galtzen joan zen. Orduko karrapeko giroa ere osota galdu zen. Oaiñ pena ikaragarrie ematen dit igandetan karrapeak. Hantxe txistularik jotzen eta karrapea huts-hutse!

**T.** Bai, trikitixa jarri zen modan, plazako taldeak... eta kordiona bazterren gelditu zen.

### **Kordiona jotzea esker oneko lana izan da, ezta?**

**J.** Bai hoixe, gurea hoixe izandu de.

**T.** Bai, bai, kontuk atera! Behin Uitzarrak etorri zien hango karnabaletan jotzeko eskatuz: "Diruik ez daukeu beño ohitura ez giñuke galdu nahi! Tomas, zenbat kobratzen dozo?" "Ohiturari eusteko bada, batez", esan nioan. Hantxe aittu nintzen eta zapela pasa zuten. Normalen kobratzen nuna beño gehiago eman zitean!

### **Zer eman dizue kordionak?**

**T.** Asko. Oaiñ ere egunero ordu pare bat itten dittot kordionakin. Denbora dauket eta bals zoragarrie ikasten aйна. Beti ikasten!

**J.** Momentu on asko! Momentu ez hain onak ere bai, ikasi behar denen, eta denbora falta denen. Kordionari esker launek in dittot leku askotan, eta gozamen haundie izandu da.

■ P. SOPRANI



Jexux eta Tomaxin 2016ko programa-banaketan Martinezen etxean tragoxka hartzen.

Kordionak  
asko eman die biri,  
eta ez da gutxio izanen  
berak Leitzari emandakoa.  
Okerrik ez bada, programa  
banatzen kalez-kale auspoari  
eraginez ikusiko ditugu eta  
halaxe jarrai dezatela  
urte askoan!!

## *Etsipenik gabe*

*Euri tantaz jositako  
armiarma sarea  
behe lainoz inguratuta gaur ere,  
leku ospelenetik sortu den  
laino hotza, hezea,  
hotzikara sortzen duen horietakoa.  
Begiak irekitzea  
kostatzen den egun honetan,  
eskua luzatu ta  
beste bat topatu dut,  
armiarma horrek bere lanean sekula  
etsiko ez duen moduan,  
gure eskuak ere elkartuta jarraituko dute  
sendo, tinko, adoretzu, etsipenik gabe...  
ta beste bat, ta hainbat gehio.  
Eskuz osatutako sarea aurkittu dut,  
indar beroaz jositakoa,  
indar mugagabe ta bereziaz  
haunditzen ta zabaltzen doan sarea...*

ALTSASUKOAK ASKE, 2019ko otsaila

■ GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA



# Argazkitxoa

Armairu hartako kajoi batean  
aurkitu nuen.  
Ttikia, kolorea aspaldian galdua,  
altxor bat bezela  
zaindua izan zenaren itxurarekin.  
Seguruenik, kariziatua,  
malkoz garbittua,  
eskutan gordea ta bihotzean bizittua,  
desesperazioz maitatua,  
galtzeko ezer ez duenak bakarrik  
matte dezakeen legez.

Argazkitxo alaia.  
irripar garbiak bertan,  
milaka ilusio ta bizitza bakarra  
konpartittu nahi duen bikotearenak.  
Istorio ederra osatu zezakeenarenak,  
bizipen goxoak elkarrekin gozatuz ta  
biziak jartzen dituen tranpak  
batera sahiestuz.  
Istorio ederra... egia izan balitz...

Ez zuten segidarik izan, ez irribarreak  
ez ta bikotearen ametsak ere.  
Zurrunbilo beltz batek banatu zituen  
37ko udazkenean.  
Gauetik goizera, abixurik gabe.  
Ixtanteko ulertu zuten  
sirena hots arrotzak  
zekarten mezua.  
Baita handik aurrera  
zein izango zen eguneroko  
musika petrala ere ...  
Zentzugabea bezain erreala.



Itziar Fagoaga Irurtia.

Hainbat alditan musukatutako  
argazkitxoak  
indarra ematen zion Lukasi,  
ta eguneroko trintxeretan  
irentsitako hautsak, aldiz, fedea galduarazi.  
Lukas etxera bueltatu zen,  
onik iritsi zen Ondarrura,  
baño ez zuen inor esperoan.  
Udaberrian desagertua bait zen Itsasne.  
Itsasne ta Lukas...  
Elkarrekin eraikiko zutenaren errautsak  
gerraren haize gorriak  
lau haizetara bortizki zabaldu ta gero... zer?  
Nire eskuetan berpiztu berri den  
argazkitxoa besterik ez...

■ GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

# ATERALDI ETA IXTORIK



## KATABERA

Katabera alki haundi bat zen, besoak yartzeko lekuarekin eta labradurez apaindua. Katabera (edo beste toki batzutan katedrala esaten zaio) griegozko katedralatik omen dator.

Etxe batean bazuten katabera eta yendeari gustora erakusten zioten alki eder hori. Behin beraneante batek ekusi zuen katabera hori eta asko gustatu zitzion. Eta gainera bera katedralatikoa zenez oso ongi heldu zitzion katabera ekusgarri hori.

Beraneantea egunero yoaten hasi zen katabera zuten etxera. Goizean paseatuz hara yoan, gazure edan eta katabera atariko larrañera atera eta Pufendorfen *Del derecho de la naturaleza de las gentes* irakurtzen ari zuten zen. Lo aldi luzeak ere egiten zituen irakurtzez aspertzen zenean. Etxe hartan etxerako sagardoa ere egiten zuten eta barrika haundi bat zuten sarrerako ate bazterrean. Eta beraneanteak gazta zerra galantak yan eta sagardoz empo egiten zuen.

Gaztandobie ari zen gaztarik gabe gelditzen eta aspertu ziren beraneanteaz eta zerbait egin beharko zutela pentsatu zuten. Etxe hartan bazen motiko kozkor bihurri bat infernuko demonio guzik berekin zituena. Eta zer egin dio, katedralatikoa moskortuxe eta zurrunketa lo zegoela kataberan, hartu zuen soka eta ixil-ixilik sokaren punta bat kataberaren hankari lotu zion. Behiak han ibiltzen ziren larrean eta sokaren beste punta behiaren buztanari erantsi zion. Behia mugitu zen eta katabera hasi zen soinuak tarra, tarra, tarra... Eta behia izututa ziripurdike tximista baino azkarrago katabera eta katedralatikoa atzetik zituela. Lizar epurdi baten trabatu eta gelditu ziren. Katedralatikoa gorbezin esnatu zen eta marmarin hasi zen denangatik asmahalak esanez. Ez zuen izan behar inspirazio haundiko maisue eta mutiko kozkorrek esaten zuen burlez: "Bere denboran eman zien leziorik hobena ordun eman zien". Katedralatikoa ez omen zen gehiago azaldu etxe hartan.

## DATORREN URTEAN BI MENDEURREN

Bat. Datorren urtean, 2020an, beteko dira ehun urte Jose Migel Barandiaran euskal antropologo, etnologo eta ikertzailea Leitzera etorri zela. 1920ko garagarri lle zen. Ozparrungo Oxakin Sagastibeltza gidari zuela ibili zen mendiz mendi gure aurrekoek utzitako aztarnen bila. Yoan ziren Biduztaine, Belarzinketara, Kornitara eta beste mendi batzutura. Oxakinek kontu

asko kontatu zizkion: Kornitako harkaitz zuloan hogeita hamabost urte lehenago nola bizi zen artzai bat eta abar.

Mereziko luke zerbait antolatzea. Izan liteke cromlechak eta dolmenak ekusiz buelta bat egitera eta ondoren herrik albokea ateratzea.

Bestea. Baita ere datorren urtean beteko dira ehun urte Leitzen azkeneko antzaryokoa egin zela. Zaldik ongi apainduta ateratzen ziren. Kapitana esaten zioten gizon bat yartzen zuten gidari eta denek haren aginduetara ibiltzen ziren. Yendetza izugarrie biltzen zuen pesta zen.

Gaurko egunen zaldizko yende asko dago eta ez al liteke datorren urteko pestetarako antzaryokoa antolatatu?

## KONTSEJUE ETA HERRIE

Lehenago udaletxeri kontsejue esaten zit zion. Batek hala zion: "Kontsejue yoan naiz paper baten bille eta alkate zipotz horrek mudi mundukoak esan dazkit. Horrek e luxintxe haundimandiri itten dioa".

Herrie berriz udalari esaten zit zion. *Herrik hartu omen do erabakie Kantarinbasoa kandelatzeko. Hori herrin konture ari da lanen. Horrek herrie yanen do.*

Herri bizkar yarri. Bizitzekorik ez zuenari herrik zerbait pagatzen zion eta horri esaten zit zion herri bizkar yarri. Baita ere esaten zen norbait moskerkiriari emanda edo diru gastatzailea zelako bere ondasun guziak yaten ari zenarengatik: *Bizi dena beide egonen da, hori ekusiko da oraindik herri bizkar yartzen.*

## METAZIRIN PUNTEN ZAPELATSA ZORRIKETAN BEZALA

Apez batzuk izaten dira sermobelari bikainak, kristabek hunkituta uzten dituztenak. Beste batzuk berriz etorri gutxikoak, sermobe luze eta aspergarriak egiten dituztenak. Holako apez batengatik hala zion batek: *Kulpitture iyotzen zen eta aurrena metazirin punten zapelatsa zorriketan bezala burue hazkatzen aritzen zen eta gero noizpatte hasten zen sermobe itten holakoak esanez: "zaku bat gorotz Oialde behera bota eta nora etorriko litzeke? Itturrizaharrera!"*



# PESTETAN ERE EMAN DIEZAIEGUN BALIOA BERTAKO ELIKAGAIEI

Udako egun hauetan, kanpotik etorritako zenbat jende ez ote digu esan ze ingurune politean bizi garen? Mendi berdeak beren baso, larre eta animaliekin, ongi zaindutako baserri ederrak dituzten auzoak, ardi eta behiek jositako belatsoak.. hemen bizi garenek ere zenbatetan ez ote digu eskertu eta apreziatu gure ingurune zoragarri hau.

Eta gure janariei buruz? Zer esanik ez! Zeinen ongi jaten den Euskal Herrian! Arrainak, barazkiak, haragiak, gaztak, kontserbak,... zer falta zaigu gure lurralde txiki honetan? Beharbada egunerokoan ez digu baloratzen gure elikagaien kalitatea, baino beste herri batzuetara joanez gero, laster konturatzen gara etxean zeinen ongi jaten dugun.

Eta zer zerikusi dute bada gure mendi eta larreek eta gure sukalde eta otorduek? Bada, guztiz lotuak daude! Gure baserritarrek, nekazariak, abeltzainak... dira gure mendiak eta bazterrak garbi eta txukun mantentzen dituztenak. Aziendak mendi eta larreetan dabilzan bitartean, bideak garbi mantentzen dira, sasiak eta belarrak orekatuagoak daude, biodibertsitatea handiagoa da... Honi esker ditugu hainbeste baloratzen ditugun paisaiak, zelai berdeak, basoak, mendi larreak... eta beste hainbat abantaila ere ematen dizkigu, adibidez, suteen aurrean mendia babes- tuagoa egotea.

Ingurunea errespetatu eta zainduz lan egiten duten pertsona hauek ere, gero kalitate ezin hobeko produktuak eskaintzen dizkigute. Aire librean eta modu osasuntsuan hazitako animalien haragia, bertako klima eta baldintzetara egokitutako barazki eta fruitak, maitasunez eraldatutako esneki, sagardo e.a-k... Mahaian jarrita hainbeste estimatzen ditugun produktu hauek historia luze bat dute atzean.

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu gure herriko pestetan ere historio hauek presente edukitzea. Bazkari eta afarietako menuak pentsatzen ditugunean, elikagai horiek atzean duten historian pentsatzea eta horri ere balioa ematea. Ez da berdina aziendak pilatuta eta ikuilutik sekula atera gabe dituen haztegi industrial bateko haragia, edo gure



larreetan hazitako animalia batena jartzea mahai gainean. Ez da berdina pestondoa pasatzeko Brasil eta Tailandiatik ekarritako mangoa edo piña jatea edo gure inguruetakoa haranak edo sagarrak gosaltzea. Ez da berdina negutegi handietan, 45 gradutan orduak eta orduak pasatu dituzten etorkinek zaindu ondotik jaten ditugun letxuga eta tomateekin egindako entsalada, edo gure baratzeetan mimoz zaindutako barazkiekin egindakoa.

Euskal Herri ttiki honetan, badugu aukera kilometro asko mugitu gabe ia zernahi elikagai eskura izateko. Kantauri itsasoko arraina, mendialdeko haragiak, gaztak edo sagardoak, erriberako ardoak, barazkiak, lekaleak edo olioak...

Eman diezaiegun duten garrantzia produktu hauei eta atzean dituzten historiei. Baloratu dezagun gure inguruneak eta herriak mantentzeko duten ezinbesteko papera, ikusi ditzagun herriaren ondare gisa, gazteentzako lan aukera gisa eta hurbileko harremanak bultzatzeko aukera gisa.

# GARAI BATEKO ALEGIA \*

## ETA GAURKOTASUNA

\* **Alegia** helburu didaktikoa duen literatura idatziaren azpigeneroa da. Protagonistak hitz egiten duten animaliak izaten dira. Gehienetan ikaskizun (moraleja) batekin amaitzen dira.

Egunkariaren goizeko begiratua eman ondoren, askotan esaten den moduan, paper zuriaren aurrean zer idatzi behar dudan jakin gabe hasi naiz letrak zurtasunaren gainean antolatzen.

Eta egunkarian gainera irakurritakoak, besterik ez bada, bat-batean, gogora etorri zait amonak kontatzen zigun animalien artean igarotako ipuinaren antzeko kontakizuna, *alegiaren* antzekoa (fabula), alegia. Batzuetan, bere interesaren arabera, kontakizuna aldatzen zuen baina, oro har, kontatzen zuena egungo egoerarekin parekatu daiteke hein handi batean.

Animaliak, aspaldi-aspaldian, etxekotzen hasi ziren garaietan kokatzen zuen kontakizuna. Labur-labur kontatuta, horrelako mintzaldia izaten zen:

*"Duela milaka urte, Lur izeneko planeta bilakatzen ari zen garai batean, basatiak ziren animaliak etxekotzea, etxekoak bihurtzea, alegia, erabaki zuten. Animalia gehienekin esan behar nuen, baina ezinezkoa da hori, beraz askorekin esatea hobe izanen da, lan astuna baitzen eta basatiak izaten erabaki zuten askok. Eta giro horretan hauek, etxekotzen saiatzen ziren horietako asko erasotzen zituzten, etengabe. Azeriek, gau ilunetan, oiloak jaten zituzten. Otsoek, banaka edo taldeka, ("manada" moduan) hainbat eta hainbat bestelako animalia desagerrarazten zituzten edota saiatzen ziren, behintzat. Modu berean; putreak eta saiak, hartzak, olagarroak, izurdeak, pelikanoak, eskorpioiak, basurdeak ... eta imajinatzen ditugun baino askoz ere animalia gehiago ziren erasotzaileak ziren talde honeetakoak. Batzuk beldurgarri agertzen ziren, beste batzuk berriz, engainatzeko asmotan modu atseginetan, aurkezten zuten euren buruak, baina lehenago edo beranduago balentria burutzen zuten.*

*Hau guztia gertatzea, denek ez bada, askok, normalizat hartzen zuten bizi ziren ekosistema mantendu ahal izateko. Baina, hala ere, erasotuak ziren aipatuta-*

*ko oiloak eta erbiak, zaldiak, zakurrak, katuak, saguak, ardiak, dortokak, arraintxoak, ... bukaezinezko zerrenda horretan zeudenek, zerbait egin behar zela aldarrikatu zuten. Eta erabaki bateratu bat hartzera iritsi behar zutela iritzi zioten. Esan beharrik ez bada ere, garrantzitsua zen horretara iristea.*

*Horregatik, esan bezala, eraso guzti hauei aurre egiteko asmoz, ordezkarien "bilera nagusi" bat burutu zuten. Han asko hitz egin ondoren, hausnarketa handia egin ondoren, neurri batzuk elkarrekin hartzea erabaki zuten, bigarren pauso eta erabaki garrantzitsua, noski. Eta gainera, ondoren ikasi zuten erasotzaileek ere, nola edo hala, eraginkor eta hobeto erasotzeko neurri batzuk hartu zituztela. Beraz, hauen zereginari garrantzi handiagoa ematen zion honek.*

*Pozik agertu ziren eta pozik azaldu ziren hartutako neurri hauek azaltzerakoan. Ondoren bakoitza bere toki edota txokora itzuli zen.*

*Baina bueltatzerakoan, bakoitza bere ingurune taldekideekin hitz eginda, erabakitakoa azaldu ondoren, orduantxe azaldu ziren zalantzak, desadostasunak, ezadostasunak, liskarrak ...*

*Besteekiko diferentziak nabarmenarazten hasi ziren. Zizarek adibidez, putreen beldur bizi zirela aitortzen zuten, baina oiloek ere berauen mokadua bihurtzen zituztela azaldu zuten. Edota, katuek saguek jaten zituztela. Batzuk isilpean bereak eta bost egiten zituztela... Era guztietako iritzi eta kritikak sortu ziren. Baita estetika edo itxuraren ingurukoak ere agertu ziren; etxeko zerriek basurdeen antzera larru-azal lakatza zutela, oiloek zuten begirada ez zela fidagarria, ardien begirada triste horrekin zaila zela behar bezalako aldaketa sortaraztea ... Eta horrela hamaika arrazoi eta iritzi. Itxura denez, denek arrazoia zuten, bakoitzak bereari begiratu gero, behintzat.*

*Eta handik aurrera, laburtuz, -amonak hala esanez amaitzen zuen- bertan behera geratu zen aurrera egi-*



*teko planeatu zuten asmo guztia. Ez ziren gutxieneko adostasun batera iritsi eta horregatik urtetan horrela jarraitu zuten, eta bitartean zapaltzaileak zirenak intentzio ona zutenak zapaltzen jarraitu zuten. Eta hau guztia, zapalduen beraien kalteko, noski.*

Ondoren amonak galderak eginez alegiaren ikaskizuna (moraleja) aterarazi nahi izaten zigun, bera guzti horrekin hezitzaile gera zedin.

**Ikaskizuna:** *Lehenbizi norberarena eta taldearena sentitzen duzuen barneratu eta zeuena egin (identitatea). Zerbaitek kalte egiten badizu edo min egin diezazukena badago (erasoa), kontuan hartu (identifikatu). Eta besteek antzeko egoera jasaten duten aztertu (enpatia) eta besteekin bat eginez indarrak batu (elkartasuna). Elkarrekin berdin(tsu) duzuen indartuz (bideratu) eta diferentziak gerorako utzi (diskriminazio-positiboa). Baina ez ahaztu, noski (memoria). Hau guztia behar bezala eginez (lanketa), gai askotarako baliagarria gerta daiteke (...).*

Hau da ikusarazten ziguna, ikasarazi nahi izaten ziguna. Eta urte askotan halako ikaskizuna pentsatu eta aurrera eraman nahi izan dut, baina, egunerokotasunak asmo guztia hausteko bidea eta aitzakia emateko motiboak aurkitu izan ditut bidean. Egunerokotasunaz hitz egiterakoan, kalera atera eta batetik edota bestetik adostasunerako baino aurkako bidea jorratzeko motiboak sortzen dituzten gaiak eta erabakiak dira burura datozkidanak.

Ordenari garrantzirik eman gabe asko dira gaiak, atalak eta arlo ezberdinak aipatu daitezkeenak. Nonbaitetik hastearren, orain dela gutxi hauteskunde ezberdinen ondoren zenbait administrazio-tokitan eginiko akordioak, jendarteko zati handi bat ordezkatzeko duen zatia edota mugimendua erabakitzeke guneetatik bidaltzeko, ez-onartzeko edota egunerokotasuneko erabakietatik bidaltzeko edo desagerrarazteko. Gainera batzuk, hauekin ez-hitze egiteko asmoa hain harro azaldu izan dute. Bestetik, *“Berdintasunaren alde”*ko bide eta erabakiak ez bultzatzea edota bertan behera uztea izan da batzuek emandako pauso edota erabakia. Hizkuntzarekiko, euskararekiko, alegia, behar bezalako egoeraren aurkako jarrera sustatzea, eta zenbait kasutan mespretxua zabaltzea. Hezkuntzarako nahitaezko bultzada gerta daitezkeen asmoak, *“Eskolae”*, adibidez, judizializatzea da bultzatu nahi izan dutena beste bakar batzuek. Erraustegia-

ren afera ere hortxe dago eta honekin batera doazen kontraesan eta diruak. Gaixo eta ez-gaixo dauden pertsona presoan eta hauen familiarren egoera behin betikoz soluzio bidean jartzeko asmorik ez dutenak. “Kanpotik” bizimodu hobearen alde datozenentzat behar bezalako neurriak ez hartzea, eta gainera hauek eta hauen aldeko lana egiten dutenak kriminalizatzeko bidea eraikitzeke asmoa dutenak. Eta luze esan gabe beste asko eta asko dira elkarren artean ezberdin bihurtzen gaituztenak: Abiadura Handiko Trenaren afera. Merkataritzaren inguruko interes ezberdinen arteko talka. Europa erraldoiaren aurrean aurre egiteke pentsaera ezberdinak.

Eraso eta jazarpen ezberdinen aurreko sentsibilitate ezberdinak; batzuetan kontrajarririak. Demokrazia hitz ajeatuarekiko ulertzeko modua, ... Eta aipatu gabe utziko ditut Munduko edota nazioarteko politikaren ulermen maila eta interpretazio desberdinak. Ibili eta buelta mundu guzti hau eta Mundua bera interpretatzeko modu eta ikuspegi ezberdinak. Hala ere hau normala da, baina aurkari egiten gaituzten jarrerak dira gainditu beharrekoak, edota gainditzeko motiboak sortarazten behar ditugu.

Hauek guztiak, eta aipatu gabe gelditu diren asko eta asko gogoan hartuz, ene amonari zera esanen nioke, nonbaitetik aditzeko aukerarik badu; *“Orain ulertzen dut alegiako animalia guzti horien desadostasunak, “guztiaren” interpretazio ezberdina. Eta hau normaltzat hartzen dut. Hala ere, zin dagizut ahal den neurrian, zuk erakutsi nahi izan zenidana neure buruari sinestarazten jarraituko dudala, **baina posible den bitartean**, eta gehienetan ez da hala gertatzen. Amona; zeure desioak hemen gordeko ditut eta Aiooooo ....”*

■ MIKEL I.

# KORAPILOAK ASKATUZ, PRESOAK ETXERA



Leitzeko pestek badute dantza eta musikatik, herri kirol, pilota, bertso edota jan-edanetik; badute, familia girotik, lagunartetik, gauek, goizaldetik, eta, nola ez, auzolan eta alaitasunetik.

Pestek sortzen diguten poz eta ilusioz, ahoan irribarrera dugularik, geure jarduna ardatzen duen lema azpimarratzeko erabili nahiko genuke txoko hau. Hain zuzen ere, pestetan nahiz urte osoan, amets baten atzetik gabiltza, herritar guztientzat eskubide guztiak berma daitezela. Izan ere, sufrimendurik, biktima gehiagorik eta euskal preso eta iheslaririk gabe, elkarbizitza eta bakea oinarri dituen jendarte bat eraikitzearekin amesten baitugu guk. Eta hori lortzea da, Leitzako Sare Herritarrak bere buruari jartzen dion erronka.

ETAren desegitearen ondoren, parez pare ireki zaigu hainbeste sufrimendu sorrarazi duen ziklo luze honi amaiera eman eta etorkizunari begira jartzeko aukera. Horretarako, ezinbestekoa da iraganetik datozen oinaze eta min guztiak sendatzea. Bide honetan, sufrimendua pairatu eta pairatzen duten guztiek merezi baitute egoera honekin amaitzea. Guztiek merezi dute egia, memoria eta erreparazioa.

Oraindik bada ordea, sufrimendua sortzen eta areagotzen jarraitzen duen auzi bat. Espetxe politikaz ari gara, noski. Urratsak urrats, oraindik 253 euskal preso euren senideengandik ehunka kilometrotara urruntzen dituen espetxe politika horretaz ari gara. Presoa ez ezik senideak ere, eta era mingarrienean haur eta adin nagusiko pertsonak, zigortzen dituen espetxe politikaz ari gara. Larriki gaixo daudenak ere preso mantentzen dituen espetxe politikaz ari gara. Azken finean, presoan eta senideen oinarrizko eskubideak ukatu, eta Espainiar estatuko zein Europako legedien aurka doan salbuespenezko espetxe politikaz ari gara. Pertsonon oinarrizko eskubideen, giza eskubideen urraketaz hitz egiten ari gara.

Espetxe politika hau iraganean kateatuta dago. Guk, ordea, etorkizunera begira jartzeko garaia dela uste dugu. Esan bezala, giza eskubideen errespetuan oinarritutako etorkizun batekin amesten dugu. Elkarbizitza eta bakeari ateak zabaltzea nahi dizkio gu, auzi hau, behin betikoz konponduz.

Horretarako, beharrezkoa da guztion bultzada eta konpromisoa. Orain arte batu ezin izan garenok batuz, adostasun zabal eta anitzetan oinarrituz, eta ahal den neurrian, adostasun horiek zabaltuz. Norabide honetan, elkartasuna adierazteko burutuko diren ekimen ezberdinen artean, pestetan, hilaren 12an, 12:30etan, Leitzako plazan giza eskubideak, bakea eta konponbidea aldarrikatu eta presoan etxeratzea oihukatze osoa dugun mosaiko koloretuan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Duela urte bete eskas ekin genion Leitzako Sare Herritarrak gure ibilbideari eta hitzartzeari ezin amaierarik eman, bide honetan babesa eta laguntza emandako herritar guztiei eskerrak adierazi gabe. Eskerrak beraz zuoi, eta eskerrak ere etorkizunean modu anitzetan dinamika honetara batuko zaretenoi. Elkarrekin hauspotuko baitugu presoan alorreko korapiloak askatzeko ekinaldia. Denok batera, presoak etxera!



# IBEROKO TORREA BERRITURIK

2008. urtean Leitzeko Suten Aurkako Mutua Elkar-teak desegiteko erabakia hartu zuen. Atzean utzi zuen urte askotako bizia, eta gure aurrekoak elkartzeko eta elkar babesteko ekimenak martxan jartzeko adierazle nabarmen bat.

Gizartea asko aldatu da eta aldatzen ari da, eta gaur egun dauden legedi eta arauetara egokitzeko zailtasunak aurkitu zituzten elkartekideek; izan ere, egungo sisteman, herri txikietan sortutako bizimoduak, ekimenak, eta kulturako arlo asko lekurik gabe gelditzen ari dira.

Elkarteko bazkide gehienak baserritarrak ziren, eta neurri handi batean udala bera ere bazkide zen. Kontuak kontu, urte askotan gertatzen ziren sute beldur-garri haien aurrean elkarri laguntzeko eta baserria, borda edota etxea berreraikitzeak aukera ematen zuen elkarre haren jardunak.

Bestalde, elkarre haren ondasunen artean Ibero ize-nez ezagutzen den eraikin sorta eta bere inguruetakoa eremuak zituen jabegoan. Guztira 33 hektarea baso-lurra. Besteak beste, dorre zahar bat, ia erorian zegoena, baserria, borda, etxaola, karobia eta ola-zahar handiaren aztarna ikusgarriak. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Alajaina!

Orduko udalean zeuden hautetsiak laster ohartu ziren inguru horien balioaz memoriaren aldetik, bar-kaezina gertatuko zen horrelako eremu historikoa eta bere inguruetakoa basoak herriaren esku gelditu ez balira: kasurik egin gabe utzi eta esku pribatu arrotzen gain gelditu, adibidez.

Afera hura negoziazio prozesu luze eta korapilatsua izan zen: alde batetik, dirulaguntzak lortu; bestetik, elkarteko ordezkariekin adostasunera ailegatu, hori bazkideen batzar orokor batean onetsi zen.

Elkarteko ordezkariak eraikin sorta zesio moduan eman zioten herriari, lurrak eta zuhaitzak berriz saldu. Modu horretan elkarre likidatzeko aurrerapausoa emana zegoen.

Artxiboa ere udalaren esku gelditu zen, herriko histori zati garrantzitsu baten gordetzaille moduan.

Lehen esan bezala, dorrea eta gainerako eraikinak oso egoera kaxkarrean ziren, tamalez: teilatua 2000tik agudo, erori egin zitzaion, eta atea itxita zeukan, pareta batekin arriskuak ekiditeko. Bestalde, baserrian ordurako ez zen inor bizi, eta hondatzen zihoan etengabe. Gainerako erakinak, paretak eta abar





ere egoera kaskarrean daude. Ez dugu ahaztu behar inguru horretan urak daukan indarra, erreka bizi-bizia jaisten baita, batez ere negu partean. Urak eta naturak desagerraraziko zuen Ibero denboraren poderioz.

Erosketa egin zenean orduko udal ordezkariak hitza eman zuten denboran zehar, eta ahal zen neurrian, lekua berreskuratzen eta balorean jartzen saiatuko zirela, nahiz eta epe luzeko aurreikuspenak izan, Goizuetako udal ordezkariekin batera.

Eta hara non, aurreikusitako denbora baino lehen, dorrea ederra ikus dezakegun ederki konpondua eta lekuari xarma berezia emanez. Harro ezarria ageri da, tente, eraikina bere harri eta pareta ikusgarriekin, ia erorian eta apal zegoena duela ez asko. Harrizko zubi ederra ere berritua ageri zaigu erreka zeharkatu dezagun.

Hartutako hitzak aurrera darrai, ikusten denez. Ez da eten ametsa zirudiena. Jendea aldatzen doa herriko udalean, baino taldelanak aurrera darrai. Herri ikuspegia denboraren iraunean. Duela lau urte, Nafar Gobernuak aldaketa zeritzon agintea ezarri zen. Giro politikoaren nolabaiteko samurtzeak, lagunduko

zuen, baino Leitzako udalaren etengabeko lanketa zuzenak, emaitza bikaina ekarri digu herritar guztientzat. Ondasun ederraren jabe gara.

Oraindik, ordea, lan asko dago egiteko, nahiz eta egindakoa ikusgarria izan. Ola-zaharra garbitu eta balorean jarri beharko litzateke, babestu eta erakusleihu bihurtu. Baserria eta gainerako eraikinak ere moldatu beharko lirateke. Eta jakina, egindako lan guztia ez dadila hutsean gelditu etorkizunerako neurriak hartu beharko lirateke.

Dorrearen gela zahar ederrak edukiz bete beharko dira, oraingo eta hurrengo belaunaldiek, zein, bisitariek, bukatuta ikusteko ahaztuxeak dauden lanbideak, mendez mende eramandako bizimoduak, historiotxoak, kezkak etab: hala nola, gure aurrekoen bizitzak, meatzarien lan gogorra, ikazkinen jarduna, mandazain eta idizainak, olagizon-emakumeak, unaiak, jauntxo eta gudariak,

Ahazturaren hautsak harrotuak izan daitezela eta antzinako usain berezi hori sentiaraz diezagula oroi-menak, une batzuetan, gaurkotuz.

■ ERNAL



# Kaxkabeltzako elkartekide guztien izenean...

**ADI AKADEMIA**

Tel. 680 273 544

**AINART ILEAPAINDEGIA**

Tel. 948 510 197

**ALLIANZ ELKARLAN ASEGUROAK**

Tel. 948 510 490 – 657 603 435

**AMAIA ARRAINDEGIA**

Tel. 948 510 590

**ANIKOTE**

Tel. 948 510 719

**ATSEDEN-GOZO**

Tel. 948 610 572

**FISIOETXEA**

Tel. 948 510 730

**ARIZTELA**

Tel. 948 610 611

**ARZALLUS HARATEGIA**

Tel. 948 510 377

**ASTIZ LIBURUDENDA**

Tel. 948 510 262

**BELARRA BELAR DENDA**

Tel. 948 510 192

**BI PAUSO**

Tel. 948 513 611 – 680 187 853

**BIOK JANTZIAK**

Tel. 948 510 477 – 696 254 741

**BITXILORE LOREDENDA**

Tel. 948 510 654

**BIXIGARRI**

Tel. 677345496

**CATALANA OCCIDENTE**

Tel. 948 610 685

**EDR'GUNEA**

Tel. 948 510 273

**ETXE TRESNAK S.L.**

Tel. 948 510 208 – 650 928 838

**GARBI DROGERIA**

Tel. 948 510 173

**GAZTETXO GOXOKI DENDA**

Tel. 948 510 741

**GAZTELU ITURGINTZA**

Tel. 948 510 086

**GOXO GUNE GOXOKI DENDA**

Tel. 661 543 953





# ONGI PASATU LEITZEKO FESTAK!

## **GURIA KARROZERIAK**

Tel. 948 510 255

## **HERNANDORENA BURDINDEGIA**

Tel. 948 510 055

## **JAURENA ESTANKOA**

Tel. 948 510 290

## **KAPRITXO**

Tel. 619 450 249

## **KIDE AHOLKULARITZA**

Tel. 948 510 990

## **KULUNKA**

Tel. 948 513 620

## **LIZARRAGA HARATEGIA**

Tel. 948 683 134

## **LEITZA GARAJEA**

Tel. 948 510 466 – 948 510 404

## **LEITZA KIROLAK**

Tel.. 948 610 976

## **LOPENEA**

Tel. 688 640 834 – 606 273 534

## **LOREA ILEAPAINDEGIA**

Tel. 669 115 986

## **MAIMUR**

Tel. 948 510 146

## **M<sup>a</sup> ISABEL LARRAYA**

Tel. 948 510 599

## **M. PLAZA - E. ARRUEPA**

Tel. 948 510 032

## **MARCIA Z. CAMPOS MENDOZA**

Tel. 948 510 998

## **MUSUNZAR OSTATUA**

Tel. 948 510 607 – 948 510 475

## **OGI BERRI**

Tel. 948 610 974

## **OIHANA ERBITI**

Tel. 948 610 636

## **OLAIA BAZAR**

Tel. 948 510 437

## **PERURENA HARATEGIA**

Tel. 948 510 164

## **PERITZA**

Tel. 948 513 682

## **SAGASTI JATETXEA**

Tel. 948 610 637

## **URKIOLA HARATEGIA**

Tel. 948 510 747 – 948 510 467

## **ZE GOXO**

Tel. 948 610 612

## **ZORTZIKO LABETXEA**

Tel. 948 510 720

## **ZURLAN**

Tel. 669 707 916



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

Diruz lagundutako jarduketa



**LABORAL**  
kutxa



**miara**  
*ilapaindegia*

Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta  
*pesta onak pasa!*

Kale Nagusia, 1 Behea  
20492 Berastegi **tel. 943 683 697**

 **LEIMEN**

**ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK**

**JAI ZORIONTSUAK DENOI!**

**LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)**  
**MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)**

 **ARAKINDEGIA**  
*jatetxea*

Menua · Karta  
garaien garaiko otorduak  
**ONGI PASA PESTAK!!**

☎ 948 510 052 / Faxe: 948 510 633  
Elbarren, 42 · LEITZA

 **ZUBI**

Polígono Usabal, 14 B  
Tolosa (Gipuzkoa)  
☎ 678 984 730  
igorzubillaga@hotmail.com

**FATXADAK ETA**  
BARNE DEKORAZIOAK

 **LAETXEA**

**PESTAK**  
**ONGI**  
**PASA!**

**ZURGIN LANAK**  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Tarinak eta parket mota guztiak

LANDAGOIKOA 15, 1. EZK. **627 015 754**  
31880 Leitza **687 989 195**

 **FONTANERÍA**  
**DANI**  
**ITURGINTZA**

Fontanería · Gasak · Elberkuraketa  
**672 18 31 99**  
iturgintzadani@gmail.com  
**LEITZA**

**ONGI PASA PESTAK!**

**GURATZ-MENDI**  
**ELKARTEA**

**ongi pasa pestak!**



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

 **ULI-ZAR**   
**ELKARTEA S.L.**

iturgintza · kalefazioa · gasa-gasoila  
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557  
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua **LEITZA**

 **CORENSO LEIZA S.L.**

**ONGI PASA PESTAK!**



☎ 948 510 600 / 948 510 601 · Fax: 948 510 602 Eluseder industrialdea · ARESO

 **AISLAN S.L.**

**AISLAN-LEITZA S.L.**  
poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943  
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

## Leitzako gasolindegia

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

## EROSLE

supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA



## ASTIZ ANAIAK ZURGINDEGIA

era guztietako egur lanak,  
ateak, leihoak, tarima,  
armairuak eta kristaldegia

Ongi pasa bestak!

☎ 948 610 606 / 948 510 285



## EGUZKI

ileapaindegia

LIDIA BILDARRAZ

ongi pasa pestak!

☎ 948 610 649 · Elbarren, 34 / 1 A · LEITZA

## MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupea@mapfre.com



## BEATRIZENEA

taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

## MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

LB  
landa-berri

DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

## Urto

karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK  
JESUS AZURMENDI JAUREGI

ONGI PASA  
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664  
Kamineros etxea · BERAŠTEGI



Pintura lanak  
orokorrean

**MELO**  
pintura lanak

☎ 609 873 178 · LEITZA



Done Mikel, 1  
☎ 948 610 909



**JEIKI ABESBATZA**

☎ 606 393 842  
jeiki.leitza@gmail.com  
f jeiki abesbatza  
Gora Santiburtzloak



**BULDAIN**  
inmobiliaria

FESTA EDER HAUETAN  
ZUEN NAHIAK BETE  
DITZAZUEN OPA DIZUET

<http://buldain.blogspot.com>  
☎ 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

**Txoko** taberna

pintxoak · otartekoak · kaxuelak

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**



**ORAIN ELKARTEA**

jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

**Gaztañaga**  
taberna

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

☎ 948 610 708

**ongi pasa pestak!**



DABID BARRIOLA

**TAXI-a**

☎ 679 715 169  
LEITZA

Ongi pasa  
pestak!

**LEITZALARREA S.L.**  
aroztegi metalikoa

☎ 948 510 598 / 669 368 991  
Landa industrialdea, 20 · LEITZA

## ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

**ONGI PASA PESTAK!**

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

## Plaza aseguruak

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

**JAVIER RAZKIN CALDERON**

*Pesta onak pasa ditzazuela!*

☎ 948 510 338 · Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrusta Industrialdea / P2 · LEITZA

## Arantxa

ILEAPAINDEGIA

GORA  
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gotzaina, 8

# GORRITZ

ERAIKUNTZAK · ESKABAZIOAK

# SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!

☎ 948 510 140 · Fax: 948 510 996 · LEITZA (NAFARROA)





**OKABIO  
KAFETEGIA**

## SUPERMERKATUA

PESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU!

☎ 948 510 731

Landa etxea · Leitza

## DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea  
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610  
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO  
(Nafarroa)



☎ 948 610 888 / 630 048 770 · Fax: 948 610 863  
Eluserder industrialdea, 1 · Areso (Nafarroa)

## CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA  
ARQUITECTO TÉCNICO



Landa Ind. - Landa eraikina 1 esk.  
**LEITZA**

948 610 684 | 629 611 912

sagastibeltza@coaatnavarra.org

## Arritxenea



PESTA ONAK PASA!

### APARTAMENTU RURALA



607 655 061  
678 477 528

Elbarren, 16  
**LEITZA**

[www.arrantxenea.com](http://www.arrantxenea.com)

**Jose Maria  
etxeberria**

gizonezkoentzako ileapaindegia

Gara San Tiburtziok



948 510 282 · LEITZA

- | Etxebizitza berriak  
Edificaciones nuevas
- | Eraikinak zaharberritzea  
Rehabilitación de edificios
- | Zureko solairu eta teilatuaren espezializatua  
Especializados en suelos y tejados de madera
- | Diru-laguntza eskaerak bideratzeko aholkularitza  
Asesoramiento en tramitación de ayudas económicas
- | Energia aurrezteko faxadak  
Fachadas para ahorro energético
- | Igoailuak jartzea  
Instalación de ascensores
- | Konpromisorik gabeko aurrekontuak  
Presupuestos sin compromiso



Imanol Echeverria 680 255 718  
tantadaiturgintza@gmail.com  
ERAKUSKETA  
Elbarren kalea 51 Leitza (Nafarroa)

AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORRA  
AEROTERMIA  
EGUZKI PLAKAK  
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK  
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK  
BIOMASA  
ZORU BERO-EMAELEA  
GREMIOEN KOORDINAZIOA

## Kornieta elkartea

Ongi pasa  
San Tiburtzioak!

LEITZA



Pesta onak  
pasa!

Tel. 948 513 600  
Landa industrialdea, 13  
31880 LEITZA (Nafarroa)

Lorea  
ileapaindegia

☎ 948 610 907  
☎ 699 115 986  
Inazibarun etxea  
Elbarren 98, Leitza



31879 BARAIBAR (Nafarroa)



Pesta zoriontsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387  
asador@galartza.com  
www.asador.galartza.com



Hamaiketakoak eta apariak ematen dira

☎ 948 510 352 · Leitza



TALLERES

Ireber S.L.

ONGI PASA PESTAK!

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA  
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza  
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



ARANTXA  
taxi zerbitzua

☎ 660794326  
✉ arantxataxia@gmail.com

Ezinduentzat egokitua  
9 Eserleku



# EREGI

**Herri Lan eta Zerbitzuak · Obras y servicios**

**PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**

San Miguel, 20 · **LEITZA**

**info@eregisl.com**



**Leitzako Udalak**

**PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**

leitzarrei, bisitariei eta gurekin  
egon ezin ahal izanen duzen guztiei.

## PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2019KO AURREKONTUA

|                                    |                    |
|------------------------------------|--------------------|
| <b>PLAZAKO MUSIKA</b>              | <b>16.150,00 €</b> |
| ORKESTRA GIZONA                    | 825,00 €           |
| TRIKITEENS                         | 2.000,00 €         |
| PURO RELAJO                        | 3.600,00 €         |
| KURKUMA                            | 1.200,00 €         |
| IKER/PLAN B                        | 1.000,00 €         |
| SKABIDEAN & THE BLACK BIRDS+KOP    | 4.500,00 €         |
| GREGARIO DE LUXE                   | 3.025,00 €         |
| <b>KIROLAK</b>                     | <b>3.600,00 €</b>  |
| HERRI KIROLAK                      | 3.600,00 €         |
| <b>UMEENTZAT</b>                   | <b>4.610,00 €</b>  |
| PUZGARRIAK                         | 800,00 €           |
| UR-TXIRRISTA                       | 1.210,00 €         |
| DENBORAREN TAUPADA (ANTZEZLANA)    | 1.100,00 €         |
| HOLI PESTA                         | 500,00 €           |
| ZEZENSUZKOA                        | 1.000,00 €         |
| <b>BESTELAKO PROGRAMAZIOA</b>      | <b>14.500,00 €</b> |
| BERTSOLARIAK                       | 2.000,00 €         |
| PILOTARIAK                         | 700,00 €           |
| GAITEROAK                          | 900,00 €           |
| TXISTULARIAK                       | 900,00 €           |
| INCANSABLES                        | 10.000,00 €        |
| <b>ZEZENAK</b>                     | <b>15.844,00 €</b> |
| ARKITEKTUAREN ZIURTAGIRIA          | 200,00 €           |
| ASIER ARRIZABALAGA                 | 6.050,00 €         |
| GIZARTE SEGURANTZA                 | 320,00 €           |
| HONDARRA BILTZEKO MAKINA           | 470,00 €           |
| HONDARRA ETA GARRAIOA              | 854,00 €           |
| MAPFRE (ERANTZUNKIZUN ZIBILA)      | 1.600,00 €         |
| MAPFRE (ISTRIPUAK ETA BALIEZINAK)  | 500,00 €           |
| MEDIKUA ETA ANBULANTZIA            | 5.500,00 €         |
| UKUILUN ALOKAIRUA                  | 350,00 €           |
| <b>OTORDUAK ETA OSTATUAK</b>       | <b>9.700,00 €</b>  |
| DANTZARI TTIKIAK                   | 400,00 €           |
| HERRI APARIA                       | 4.500,00 €         |
| TXAKOLINA                          | 1.200,00 €         |
| JUBILATUEN BAZKARIA                | 1.500,00 €         |
| OTORDUAK ETA OSTATUAK              | 1.500,00 €         |
| SAN TIBURTZIO EGUNEKO HAMAIKETAKOA | 600,00 €           |
| <b>PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA</b>   | <b>2.150,00 €</b>  |
| PROGRAMA                           | 2.000,00 €         |
| PROGRAMA LEHIAKETAREN SARIA        | 150,00 €           |
| <b>BESTELAKOAK</b>                 | <b>13.035,00 €</b> |
| ARGINDARRAREN KONEXIOA ETA GASTUAK | 1.000,00 €         |
| GARBIKETA                          | 2.500,00 €         |
| LANGILEEN APARTEKO OTORDUAK        | 1.500,00 €         |
| SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES        | 1.240,00 €         |
| SOINU ETA EKIPOA                   | 6.795,00 €         |
| <b>GUZTIRA</b>                     | <b>79.589,00 €</b> |





JAIETAN ERE  
*izan zaitez zu*



**KATTALINGUNE**  
Servicio LGTB Zerbitzua



**Kattalingorri**  
nafarroako • lesbiana • gay • bisex • trans de navarra

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

SUBVENCIONA INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD  
NAFARROAKO BERDINTASUN INSTITUTUAK LAGUNDUTA



# BIZI JAIK BERDINTASUNEAN

Errespetuzko harremanen alde



Leitzako  
Udala



Nafarroako  
Gobernua

